

2007KO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA

Irailaren 16tik 22ra



Legazpiko Udalak Mugikortasunaren Europako Astearen alde egin du eta horrela adierazi du sinatu berri duen Atxikitze-gutunean. Honako hau da aurtengo lema: “**KALEAK, GUZTIONTZAT**”. Horrekin toki batetik bestera joateko erabiltzen ditugun garraioez hausnarketa bultzatu nahi da.

Europako beste hiri eta udalerritan egin den bezalaxe, hainbat ekintza antolatu dira gure herriko bizilagunak leku batetik bestera joateko dauden beste aukerak erabiltzeko beharrendu gaitzen gaitzen (oinez, bizikletaz, autobusez, trenez...) eta abantailak ezagutuz (kutsadura eta zarata gutxiago, kaleen okupazio gutxiago, elkarren arteko harreman handiagoa....)

LEGAZPIN EGINGO DIREN EKINTZAK

EGUNA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA
20	18:30	Goierrri taberna (Urtatza) - Arantzazu - San Inazio (Muru) - Juanastegi - Aiztonaga - Aizkorri kalea - Nagusia - Plazaola - Euskalherria enparantza. Gazteenak eta beranduago iristen direnak Aizkorri kaletik plazara zuzenean joango dira.	BIZIKLETA IBILALDIA. Laguntzaileak: Korosti Txango Elkarte eta Telleriarteko Txirringulari Elkarte. Kontutan izan: <ul style="list-style-type: none"> Ibilaldia ez da lasterketa bat, gure herrian bizikleta erabiltzeko erreibindikazio-ekintza baizik. Hori dela eta, abiadura orduko 20 kilometrora mugatu dugu. Derrigorrezkoa da kaskoa eramatea !!!! Bukaeran: otartekoak eta oparien zozketa.
20	19:00	Euskal Herria Plaza	ZENBAT BALIO DUTE NIRE JOAN-ETORRIEK?: Bi ingurumen-hezitzailek leku batetik bestera joateko modu bat edo beste erabiltzeak ingurumenean, gizartean eta dirutan duen kostuaren gaineko mezuak eskainiko dizkigute. Modu berean, garraio iraunkorraren gainean hausnartzea eta eztabaidatzea bultzatuko dute.
Finkatu gabe	9:00 – 13:00	Jakinaraziko da	INGURUMENARI LAGUNDUZ GIDATZEKO IKASTAROA. EVE taldeak (Ente Vasco de la Energia) INGURUMENARI LAGUNDUZ GIDATZEKO IKASTAROA eskainiko du. Gidatzeko jarraibide erraz batzuekin errekin gutxiago kontsumitzen eta CO2 gutxitzen ikasiko dugu. Ikastaroa doan da eta 4 orduko da (bi ordu teoriko eta bi praktikoa). Parte hartu ahal izateko gidatzeko agiria eta gure ekonomia eta ingurumena zaintzeko gogoia besterik ez da behar. Izena emateko epea irekita dago. Tfnoa: 943 726164 (Josune-UGGASA)